

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURKETEN 2013ko INBENTARIOA

EMAITZA NAGUSIAK



© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako
Sozietate Publikoa
2015ko maiatza

ARGITARATZAILEA

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako
Sozietate Publikoa
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritz

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. Solairua -48011 Bilbao
www.ihobe.eus - www.ingurumena.eus
Tel: 900 15 08 64

DISENUA ETA MAKETAZIOA

dualxj comunicaci3n&dise1o

EDUKIA

Dokumentu honen egilea Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta bere mendeko Ihobe ingurumen jarduketarako sozietate publikoaren talde teknikoa izan da



Liburu honetako edukiak, argitalpen honetan, lizentzia honen babespean argitaratu dira: Aitortza - Ez komertziala - Eratorritako obrarik gabe 3.0 Unported, Creative Commons (informazio gehiago http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES).


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURKETEN 2013ko INBENTARIOA



Berotegi efektuko gasen isurketak (BEG isurketak), CO₂ baliokidetan neurtuta, % 8 jaitsi dira 2013an, aurreko urtearekin alderatuta. Balio absolututan, 19,3 milioi tona izan dira, eta 2012an, 21,1 milioi tona izan ziren. Hala, Kyotoko Protokolorako (KP) erreferentziako indizea oinarri-urtekoa baino 10 puntu txikiagoa da (-% 10).

Aurreko urtearekin alderatuta izandako isurketa-jaitsiera nabarmen lotuta dago elektrizitatearen sektoreko isurketen gutxitzearekin. **Halaber, industriako sektorean ere gutxitu dira isurketak, proportzio txikiagoan izan bada ere.**

ISURKETEN BILAKAERA EAEn, ESPAINIAN ETA EBn



* Iturria: Espainiako BEG indizea: 2012ko BEG isurketen inbentarioaren aurrerapena. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

BEG ISURKETEN KOPURU OSOA SEKTOREKA, OINARRI-URTEAREKIN ALDERATUTA (milaka tona CO₂ baliokidetan)

Sektorea	Oinarri-urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	1990-2013
Energiaren sektorea*	7.878,6	10.576,2	11.005,8	11.191,5	9.990,6	8.697,2	7.719,5	7.705,3	8.014,9	6.680,2	-1.198,4
Industria	7.801,9	5.860,0	5.904,8	5.676,0	6.034,0	5.333,4	5.929,4	5.003,4	4.671,7	4.281,2	-3.520,6
Garraioa	2.718,7	5.486,1	5.691,5	6.080,4	5.713,0	5.287,7	5.104,7	5.033,6	5.288,3	5.363,8	2.645,1
Bizitegi-erabilera	629,6	941,5	776,0	779,4	879,6	870,4	885,3	770,7	807,9	783,2	153,6
Zerbitzuak	223,5	461,4	433,3	432,3	505,0	485,1	518,3	502,8	517,9	494,7	271,1
Nekazaritza	1.110,9	1.121,7	1.088,8	831,0	800,2	799,8	776,5	753,0	740,3	708,4	-402,5
Hondakinak	1.098,2	1.222,1	1.201,9	1.141,4	1.219,8	1.172,9	1.048,1	1.010,0	1.034,7	992,3	-106,0
Guztira	21.461,4	25.669,0	26.102,0	26.132,0	25.142,2	22.646,7	21.981,7	20.778,7	21.075,7	19.303,8	-2.157,6

Oharra: kalkulatzeko metodologia eguneratu denez, baliteke aurreko urteetako isurketa-balioak aurreko argitalpenetako berberak ez izatea. Inbentario honetan, berokuntza-potentzialak eguneratu dira, IPCCren IV. txostenaren arabera.

Mix elektrikoak eragin du jaitsiera handi hori energiaren sektorean. Bereziki sektore hidroelektrikoko eta eolikoko ekoizpen berriztagarriari esker, azken urteetako joerari eutsi ahal izan zaio: gaseko ziklo konbinatuko ekoizpena txikitzea, baita ikatzean oinarritutakoa ere. Mix elektrikoaren bilakaera estatu osoan gertatu den arren, Euskadikoa azpimarragarria izan da. Izan ere, 2012ko amaieran, Pasaiaiko zentral termikoa itxi zuten (ikatz) eta ziklo konbinatuen ekoizpen-mailak txikiak izan dira, energia berriztagarrien, kogenerazioaren eta elektrizitate-inportazioaren alde egin dutelako.

Errepide bidezko **garraioaren sektorean** soilik gehitu ziren isurketak. Gainerako sektoreetan, isurketak gutxitu egin ziren, hein txikiagoan bada ere. Arrazoi nagusia erregaien kontsumo txikiagoa da. Garraioaren isurketak erregaiaren salmentaren arabera kontabilizatzen dira. Horrenbestez, baliteke isurketen igoera Euskadiko eta eskualde mugakideen prezioen aldaketak eragin izana.

Isurketen intentsitatea txikitu egin da, hau da, BPGaren unitate bat ekoizteko sortutako isurketak. Izan ere, isurketak % 8 gutxitu dira, eta BPG % 1,7 jaitsi da.

Erregulatutako sektoreen isurketak (Europako isurketen merkataritza) gutxitu egin ziren, sektore guztietako beherakadei esker, bereziki, sektore elektrikokoa. 2005eko datuekin alderatuta, isurketak % 42 jaitsi dira.


Isurketa zehaztugabeen kasuan ere (arautu gabeak, alegia, hondakinak, etxebizitzakoak, zerbitzuak, garraioa, arautu gabeko industria...) jaitsi egin ziren azken urtean, sektore guztietako gutxitzeengatik, garraioaren sektorearena izan ezik. 2005eko datuekin alderatuta, isurketak % 13 jaitsi dira.

Hona hemen isurketen zatirik handiena eragiten duten sektoreen egoeraren eta bilakaeraren laburpen bat.

Energiaren sektorea

Sektore honek EAEko isurketen % 35 eragiten du.

Euskadin, azken urtean, isurketak % 17 gutxitu dira, batez ere **ekoizpen termoelektrikoa** gutxitu delako: alde batetik, Pasaiaiko zentrala itxi dutelako eta, bestetik, gaseko ziklo konbinatuko ekoizpena



txikitu dutelako, berriztagarrien, kogenerazioaren eta elektrizitate-inportazioaren alde egin dutelako.

Estatuan, ekoizpen termoelektroa txikitu zuten, bai gasarena bai ikatzarena, iturri berriztagarrien alde egin dutelako (bereziki hidroelektroak eta eolikoak).

1990etik hona, sektore honen isurketak % 17 gutxitu dira.

Garraioaren sektorea

Sektore honek EAEko isurketen % 28 eragiten du. Arlo honetan, isurketen % 96, gutxi gorabehera, errepideko garraioak eragiten du. Aurreko urtearekin alderatuta, isurketak % 1,5 handitu dira. Garraioaren isurketak erregaiaren salmentaren arabera kontabilizatzen dira. Horrenbestez, baliteke isurketen igoera Euskadiko eta eskualde mugakideen prezioen aldaketak eragin izana.

1990. urtearekin alderatuta, salgaien garraioari lotutako isurketak eta bidaiarien garraioari loturikoak bikoiztu egin dira. Hazkunde handiena ibilgailu partikularrek eragindako isurketetan eta diesel-ibilgailu arinetan eginiko salgaien garraioan gertatu da.

Industriaren sektorea

Sektore honek EAEko isurketen % 22 sortzen du (zuzeneko isurketak), baina kontsumitzen duen energiari loturiko isurketak hartzen baditugu aintzat (zeharkako isurketak), portzentaje hori % 35ekoa da.

Zuzeneko isurketak % 8 jaitsi dira aurreko urtearekiko.

1990. urtearekin alderatuta, isurketak % 45 gutxitu dira. Industria sektorearen eraginkortasuna 63 puntutan hobetu da, **BEG/BPG isurketari** dagokionez, 1990 urtearekin alderatuta, izan ere, elektrizitate kontsumotik eta kogenerazioko berotik eratorritako isurketak egozten bazaizkio, sektore honek % 36 murriztu ditu isurketak eta, aldiz, BPG industrialaren sorkuntza % 63 hazi da.

Etxebizitzaren eta zerbitzuen sektorea

Etxebizitzaren sektoreak eta zerbitzuenak Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gasen % 7 eragiten dute (zuzeneko isurketak). Kontsumitzen duen elektrizitateari loturiko isurketak aintzat hartuz gero (zeharkako isurketak), % 16raino igotzen da ehuneko hori.

Zuzeneko isurketek behera egin dute 2012. urtearekin alderatuta, batez ere, gas naturalaren kontsumoak behera egin duelako.

Etxebizitza sektoreak % 24 areagotu ditu zuzeneko isurketak 1990etik; zerbitzu sektorearen isurketak, berriz, % 121 hazi dira.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektorea

Sektore honek EAEko isurketen % 4 eragiten du. Isuriek % 33 egin dute behera 1990. urtetik. Sektore honen jaitsiera hainbat faktorek eragin dute, horien artean, azkeneko erroldak behera egin izana, ongari mineralen murrizketa, arrantza-jardueren beherakada eta nekazaritzan erregai gutxiago erabiltzea.


Hondakinen sektorea

Sektore horretakoak izan ziren EAEko isurketa guztien % 5; hau da, % 10 egin dute behera 1990. urtearekiko.


Oinarri-urteetik hona gertatu den isurketa-murrizketaren atzean hainbat faktore daude, horien artean, isurtze-tasa txikiagoa (etxe hondakinen sorkuntza gutxitzea, birziklatze-ehunekoak handitzea, zabortegietako aurretratamenduak, errausketa...) eta isurketa zehaztugabeen murrizketa, hobekuntzak izan direlako zabortegietako estaldurretan eta zabortegiko gasaren erredukuntzan.



ISURKETEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA



EKARPENA SEKTOREAREN ARABERA



EKARPENA SEKTOREAREN ARABERA, ELEKTRIZITATEAREN CO₂ SEKTORE KONTSUMITZAILEEI ESLEITUTA

